

## Emakume Ekintzaileak mahai-ingurua Bidasoako campusean, Emakundek antolatzen duen berdintasun foroaren barnean

2007/08/05

**Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultateak Emakume Ekintzaileak mahai-ingurua** hartu du Bidasoako bere campusean, Emakundek urtero antolatzen duen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duen **NARO programaren** barnean. Topaketa asteartean, maiatzaren 15ean izan da, 16:00etan, Irungo campusean.

Gertu programaren arduradunak, **Mónica Gagok** moderatu du topaketa. **Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultateak** eta Bidasoa Bizirik erakundeak ipini zuten martxan Gertu programa, ekintzailatza sustatzeko, eta horren III. ekitaldia da aurten. Topaketan, honako hauek izan dira: **Azucena Castro** (OWL Genomics), **Estrella Leiras** (Academia de francés y apoyo escolar Estrella) eta **Virginia** (Harrilur Geotecnia S.L.). Gaia: emakume ekintzaileak. Foroan, parte-hartzailek aztertu dute ea zer arrazoi dituzten emakumeek beren enpresak sortzea erabakitzeke.

Era berean, hauek ere aztertu dira mahai-inguruan: enpresa horiek sortzeko jarduera eta sektore egokienak zein diren, eta ekintzailatza-prozesuan topatzen diren laguntza eta oztopo nagusiak. 2005ean EAEn bere enpresa sortzea erabaki zuten pertsona guztien artean, % 37,9 emakumeak ziren. 2004an baino ia % 13 gehiago.

### NARO programa

Emakundek sustatzen du urtero **NARO programa**, eta horrexen barnean sartzten da **Mondragon Unibertsitateak** hartu duen **Emakume Ekintzaileak mahai-ingurua**. NAROk helburu hauxe du: hainbat erakunde, talde eta elkarte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten ari diren lana biltzea, ikusaraztea eta sendotzea. Horrela, aipatu foroak esparru bat izan nahi du, erakunde publikoek eta pribatuek bertan koka ditzaten berdintasunaren aldeko beren ekimenak.

Sei gai-arlotan biltzen dira IV. ekitaldi honetako ekimenak: Ekonomia eta enplegua (**Mondragon Unibertsitateak** parte hartzen du hor), Osasuna, Jabekuntza (ekintza humanitarioko filosofia) eta parte-hartze soziala, Hezkidetza, Emakumeen aurkako indarkeria, eta Sentsibilizazioa eta mentalitate aldaketa.

